





Iko, oihaneko oreinkumea, inguru haietan zebiltzanetatik bihurri eta ernaiena zan noski, beti ebilen arrisguko gauza bitxien bila.

Lore usaiak sumatzen zituan, zelaietako belarrak milikatu, zuhaiztxoen ostu samurreri hagin-ka, aintzirako arraintxoeri txunditurik begiratu eta mitxeleteri jarraitu.

Sekula ez egoan geldi.

Bere lagunik maiteenak zituan bi erbi-
kume, hiru marraskilo, hormatxori bat,
eta ontz zahar bat, saputz xamarra baina
on hutxa. Iko-ri atsegin zitzaion egunero
bere adiskideekin jolaste eta bihurrike-
riren bat edo beste egitea.

Egia esan, ez zitzaion Iko-ri gauza erreza
izan ontzakin adiskide egitea, mila mu-
sinka eta zuriketaren ondorean lortu
zuan. Lehendabizi, ontzak, bere negusi-
tasunez jabeturik, jaramonik ere ez zion



egiten oreinkumeari,
baina poliki poliki,
lko-k jakin zuan ontz
zorrotzaren gogoa
irabazten. Gehien
gustatzen zaiona zan
ontzari bere jakindu-



riz beteriko esaerak[†] eta erabakiak entzutea.
Ontzak, bere aldetik, lko onesten zuan alegi-
nezko ikasia zanaren lotsa gordeaz eta errespe-
tuz eta batzuetan, tentazioeri amor emanaz,
liburua ere itxitzen zuan eta lko-kin jauzika
jolasten zan.



Baina ontzarekin alkartzeak nahi eta nahi-ez izan behar ziran laburrak eta lko-ri ez zitzaion hori gogoko. Hain zuzen, ilunabarrean bakarrik alkar ikusi zezakean, zeren ontza gautxoria danez, egunaz bere kabian izkutaturik lo egiten du. Bestalde, lko-k amari obeditu beharra zuan, zeinek agindua zion guztiz ilundu baino lehen etxeratu beharra eta horregatik zitzaion labur

ontzarekin igaro ahal zuen denbora.

Zelan konpondu biak alkarrekin denbora gehi-
goan egoteko? Baruko garunei bira asko ema-
narren lko-k ez zuan arkitzen beste biderik gauzez
etxetik ihes egitea baino, loari ordu batzuek
galeraziaz bere adiskidearekin egotearren eta
bere ipuiak entzunez josta.

Jakina, ez zitzaion bururatu ontzari aholkurik
eskatzea.

lko artoa zalako eta gauzak bere erara egin nahi
zitalako berak baino gehiago dakienei jaramo-
nik egiten ez dio-
ten haurrak be-
zala.

Egun batez, ilunt-
zean, lko-k agur-
tu zuan bere
adiskide zuan






ontza eta bere etxe alderuntza joan zan.
Ama, egunero bezala, afaitarako itxaroten
egoan.

Afalondoan, lko amaren alboan etzan zan eta
honek gozamenean zuela lokartuarena egiteko.



Baina amaren arnas-hotsetik konturatu zanean hau loak hartu zala, is-isilik jaiki zan eta... ospa! oinkada luzeekin dzanga-dzanga ilunak inguraturiko oihanerako bidea hartu zuan.



Oreinkume buru-arintxoa inoiz ez zan izan oihanean gauaz, eta isiltasun sakon harek,



iluntasun beltz harek bildurra sartu zion. Baina hain oldar abiatu zanez, aurrera zeraman bere ausarkeria.

Urratsez-urrats, bihotza bularretik irten beharrean, korrika jarraitu zuan.

Inoiz, lurreko abar igarren bat zapalduta austeran ateratzen zuan karrazkada hotsa, oihartzunez birriturik eskopetaren tiroa iduritzen zitzaion.

Baina edozein zaratatxok, naiz zuhaitzetik eroritzen zan orbelarena edo gautxoriren baten egu farrastadak bildurtzen zuan. Iko-k ez zuan nahi izan atzera itzultzerik. Setati eta kaxka-gogorra danez-gero berea egin nahi du.

Aintzirako uraren zurmurra entzun zuanean zer-bait lasaitu zan usterik ez zala galdu eta bertara urreratu zan pentsaturik aintzira bazterrean gaua ez zala hain iluna izango.

A, zer nahigabea! Egunaz hain garbi eta urdin



zan ur hura, gauez beltz-beltza zan eta ez zan ikusten arraintxo bat bera ere, seguru asko, lotan zeuden harrikoak artean sartuta.

Iko, hainbeste ibiltzen nekaturik eta zeharo izututa, azkenerako, bere buruari etsita, aintzira bazterrean etzan zan.

Logura zan eta bere amaren ondoa etxeko ohearen epelean gogoratzen zitzaion; gainera



oihaneko isiltasun haiek bildur izugarria ematen zion zeren zaratarik txikienak arris-koan sentieraziz ikaratzzen bai zuan.

Orduan konturatu zan zein gaizki portatu zan eta damaturik negarrari eman zion.

Bere adiskide ontzak laster entzun zituan negarrak eta zuhaitzetatik adarrik-adar hurre-



ratu zan aintziraraino nahigabeturik egoana bera ote zan ikustera.

Negar larrietan egoana bere adiskide oreinkumea zala konturatu zanean, galdetu zion:

—Baina zer egiten duzu hemen? Eri al zaude? Zergatik zabiltz hemendik ordu hoietan?

Iko-k, adorea hartuaz, bere adiskideari kontatu zion zer eta zelan etxetik ihes egin zuan.

Ontzak entzun zuanean Iko-k zion guztia patientziaz baina begirakune hasarrearekin.

Gero agiraka egin zion:

—Zelan bururatu zaizu hori? Ez al dakizu



amaren baimenik gabe ezin duzula etxetik alde? Bera iratzartuko balitz eta zu ondoan ez zaudela konturatu, gerta ditekean bezala, ez al duzu pentsatu emango diozun nahigabearekin erotu beharrean jarriko dala zure bila? A, txoroa halakoa? Egia esan, zigor ederra merezi duzu...

Baina ontzak ez zuan izan lko-ri hasarre egite jarraitzeko bihotzik, dana dala berakin denbora gehiagoan egotearren egin zuan hura. Beste gabe, oreinkumeari jarraitzeko esa zion. Eta badoaz.

Ontzaren begien argiari esker lko-k etxerako bidea arkitu zuan. Heltzeaz bat, amagana hurreratu zan eta zorionez, konturatu zan, iratzartu gabe jarraitzen zuala, eta bere ondoan etzan zan Loak hartu baino lehen ontzak emandako aholku jakitun guztiez behin baino gehiagotan oroitu zan eta inoiz ez aitzutzeko erabakia hartu zuan.

